



ALTZOKO UDALA

OHIKO PLENORAKO DEIA.

LEKUA: Altzoko Udaletxea

EGUNA: 2026ko martxoak 26, osteguna,

ORDUA: arratsaldeko 15:30etan.

G A I - Z E R R E N D A

- 1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADA.
- 2.- ALTZO MUÑOKO JU2 edo AI2 EREMUKO URBANIZAZIO LANAK; 7. ZERTIFIKAZIOA.
- 3.- INFORMAZIOA eta ERABAKIAK; JIAT-k AURKEZTUTAKO IDATZIEIen aurrean (“GI-3620 ERREPIDEK ABIAZTEN DEN ETA KATASTROKO 105. LURZATIAN DAGOEN PABILOIRA IRISTEN DEN BIDEA”ren INGURUKOKOAK e.a.)
- 4.- 2025 EKITALDIKO LIKIDAZIOA ETA KONTUEN AURKEZPENA
- 5.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA BESTE HERRI BATZUEKIN ESLEITZEKO IZAPIDEAK: HITZARMENA ETA OINARRIEN ONESPENA.
- 6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 7.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.
- 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Altzon, 2026ko martxoaren 23an
Alkateak: Xabier Olano Jauregi



AKTA

2026ko martxoaren 26an, ostegunean: Osoko Bilkura.

Altzoko Udaletxean, 2026ko martxoaren 26an, ostegunean, arratsaldeko 15:30etan, behean zerrendatzen direnak bertan izanik, Osoko Bilkura burutu da.

Lehendakaria:	Xabier Olano Jauregi
Zinegotziak:	Xabier Murua Zubizarreta Enaitz Aizpitarte Murua Loli Arandia Azpeitia Jaione Galarraga Zabala Alaitz Bilbao Garay
Idazkaria:	Olga Urbizu Urreaga

G A I - Z E R R E N D A

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADA.

Aho batez onartu da 2026ko otsailaren 25eko Osoko Bilkurako akta eta web orrian informazioa emateko plataforman argitaratzea erabaki da.

2.- ALTZO MUÑOKO JU2 edo AI2 EREMUKO URBANIZAZIO LANAK; 7. ZERTIFIKAZIOA.

ALTZO MUÑOKO OSTATU ATZEKO AUZOAN (JU2 edo AI2), AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK HOBETZEKO OBRA LANA egiten ari da, Construcciones ARTZAMENDI SA-ri esleitu zitzaion 553.074,19 €ko prezioan (BEZ gabe, obra honetan Altzoko Udala “inbertsioa egiten ari den zergaduna delako”)

Aipatu behar da, finantziatorako, Eusko Jaurlaritzako EREIN 2024 programak 300.000,00 € jarriko dituela jakinarazi zuela.

Dagoeneko 6 zertifikazio onartuta eta ordainduta daude, zehazki esanda 377.710,98 €, BEZa 0 dutenak.

Gaurko Plenora 7. lan zertifikazioa aurkeztu da; 132.574,96 €koa BEZa 0 duena eta hau onartuta 510.285,94 € onartuko dira.

Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez ERABAKI DU:

Lehenengoa: Altzo Muñoko JU2n egindako urbanizazio lanen 7. Zertifikazioa onartzea, 132.574,96 €koa, BEZa 0 duena, Altzoko Udala obra honetan “inbertsioa egiten ari den zergaduna” delako, eta CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI Sari fakturatzen duenean ordaintzea.

3.- INFORMAZIOA eta ERABAKIAK; JIAT-k AURKEZTUTAKO IDATZIEen aurrean (“GI-3620 ERREPIDETIK ABIATZEN DEN ETA KATASTROKO 105. LURZATIAN DAGOEN PABILOIRA IRISTEN DEN BIDEA”ren INGURUKOKOAK e.a.)

Ikusirik, “Gai bera eta interesatu/eskatzaile berdina” puntuak aztertuko direla gaurko Osoko Bilkuran ere, Alkateak adierazi du lan zama horrek asko zailtzen duela Udalaren eguneroko jardura eta oso nekeza egiten duela garaiz erantzutea. Dena den,



Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik 6 bertan izanik eta Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin ondorengo gaiak aztertu eta erabaki dira;

1) EAEko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio-Auzietako Salaren 3. Atalak: “10/2026 Kostueak tasatzeko pieza” prozeduran; 11.656,62 euro ordaintzea dagokio Alzoko Udalari eta datozen egunetan ordainketa egitea erabaki da

2) EAEko Justizia Auzitegi Nagusia Administrazio-Auzietako Salaren 3. Atalak: “11/2026 Kostueak tasatzeko pieza” prozeduran; 1.453,82 euro ordaintzea dagokio Alzoko Udalari eta ordaintzea erabaki da.

3) Donostiako 3. Epaitegian; Errekurtso berria aurkeztu da, Iñaki Arandia Mendizabalek aurkeztu du 1-2026 Dekretuaren kontra (Obra baimena GFAak jarritako baldintzarekin ematen ziona Iñaki Arandiari berari). Epaitegiak Arrunta 68/2026 prozedura ireki du eta Udalak Espedientea bidali behar dio Epaitegiari Apirilaren 13rako. Halaber epatuko dira F MG eta GFA espediente honetan interesdunak direlako.

4) Donostiako 3. Epaitegian; Errekurtso berria aurkeztu du Jose Ignacio Arandia Tolosak, 49-2025 obra lizentziaren Dekretuaren aurka jarri zuen Berrazterte Errekurtsoari Udalak ez erantzuteagatik. Epaitegiak, Arrunta 73/2026 prozedura hasi du eta Udalak Espedientea bidali behar dio Apirilaren 9rako Epaitegiari.

5) Donostiako Epaitegia “184/20216 Kostuen tasazioaren inpuñazioa” prozeduran; 356,22 euro ordaintzea dagokio Alzoko Udalari eta ordainketa egitea erabaki da.

6) Aurreko Plenoan erabaki zen Jose Ignacio Arandia Tolosak aurkeztutako “Errekurtsoa estimatzea eta beraz JIATek F.M.-ren aurka jarri zuen salaketa artxibatzeko Udal Akordioa deuseztatzea eta erabaki berri bat hartzeko izapidea burutzeko prozesua martxan jartzea erabaki da.”

Gaurko Osoko Bilkuran erabaki da; Gipuzkoako Foru Aldundikoari eskatzea F MGren aurkako salaketa aztertu dezan, Aldundiko funtzionario gaitu batek.

4.- 2025 EKITALDIKO LIKIDAZIOA ETA KONTUEN AURKEZPENA

Alkateak 2025eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aurkeztu du, 2026/12 Dekretuz onartua bere ahalmena delako eta ondorengo moduan laburtzen dena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2025-12-31n:		41.634,44
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2025-12-31n:		508.143,19
Aurrekontuko zordunak :	257.842,34	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	250.300,85	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2025-12-31n:		70.724,84
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	3.319,55	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	67.405,29	



ALTZOKO UDALA

- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):	479.052,79
5.- Saldo kobragaitzak:	0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	479.052,79

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-144.793,56
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	434.467,69
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	289.674,13

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	426.100,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	747.561,67
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.173.661,67

Halaber, azaldu du Kontu Orokorra ere prest dagoela jendaurrean jartzeko.
Honen aurrean Udalak Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik aho batez ERABAKI DU:

Lehenengoa: 2025ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Bigarrena: 2025ko kontuen Kontu Orokorra jendaurrean jartzea hurrengo Pleno batean onartzeko

5.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA BESTE HERRI BATZUEKIN ESLEITZEKO IZAPIDEAK: HITZARMENA ETA OINARRIEN ONESPENA eta IRURAKO UDALARI PROZESUA KUDEATU DEZAN ESKATZEA.

Altzoko Udalak eskaintzen du etxez etxeko zerbitzua eta gaur egun 6 pertsonек edo onuradunek jasotzen dute zerbitzu hau.

Zerbitzua eskaintzeko, Udalak "ZU eta BIOD" Enpresarekin sinatu zuen behin behineko hitzarmen akordioa 2020an, behin betiko esleipen prozedura egin arte. ZU eta



ALTZOKO UDALA

BIOK” Enpresarekin zerbitzua lotzea posible ez denetan beste enpresa batekin eskaintzen da zerbitzua behin behinean.

Zerbitzuaren emakidan Administrazio Publikoko Kontratuen Legea bete nahirik “beste herri batzuekin zerbitzua esleitzeko prozedura izapidetzea dela hoberena ikusi da” azken urte honetan. Honela, arazo berdina duten herrien artean elkarrekin prozedura burutzeko Hitzarmen eredu bat eta Plegu Administratibo eta Teknikoak landu dira.

Gaurko Osoko Bilkuran, bi dokumentuak aurkeztu dira eta Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez ERABAKI DU:

Lehenengoa: “UDAL EZBERDINEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA; ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA HERRI HORIETAN EMATEKO” Hitzarmen eredua onartzea eta Xabier Olano Jauregi alkateari baimena ematea Altzoko Udalaren izenean Hitzarmena sinatu dezan.

Bigarrena: esleipen prozesurako “ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALDINTZA TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOAK” onartzea.

Hirugarrena: Irurako Udalari enkargua edo eskumena ematea esleipen prozedura landu edo kudeatu dezan, aurreko bi puntuetan onartu diren Hitzarmen eta Pleguen arabera.

6.- XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA; AMATEGIALDEA 34an DAGOEN IKUSLEKU ETXEAREN KANPO ALDEAN IGOGAILUA JARTZEKO

2025eko urriaren 17an, Aitor Urquiola Emparanzak (Fincas Urretxu SL) Amategialdea 34an dagoen Ikusleku etxean, kanpo aldean, igogailua jartzeko obra lizentzia eskatu zuen.

2025eko azaroaren 3an Udala aholkatzen duen arkitektoak txostena egin zuen besteak beste azalduz, Xehetasun Azterketa egin behar dela igogailua kanpo aldean jarri behar delako.

2026ko urtarrilaren 8an, Fincas Urretxuk Xehetasun Azterlana aurkeztu zuen Udaltxean. Alkateak 2026/2 Dekretuz hasierako onespena eman zion eta jendaurreko erakusketan jarri zen iragarkia GAOn argitaratuz 2026-02-03an. Jendaurreko erakusketan egon den epean bere aurkako erreklamaziorik ez da aurkeztu.

Udalak Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez ERABAKI DU:

Lehenengoa: Amategialdea 34an dagoen Ikusleku etxearen kanpo aldean igogailua jartzeko Xehetasun Azterketa behin betikoz onartzea. Erabakia FINCAS URRETXU SLri jakinaraztea, obra lizentzi esakera izapidetzen jarrai dezan) eta GAOn argitaratzea.

Bigarrena: GFako Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketa Sailera behin betikoz onartutako dokumentua eta erabaki hau bidaltzea Planeamendu instrumentu gisa erregistratu dezan.

6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak aurreko Plenoaz geroztik erabaki dituen Dekretuen berri eman du, 2026/11tik 2026/15ra, biak barne, Dekretuak irakurriz. Gainontzekoak jakinaren gainean gelditu dira.



ALTZOKO UDALA

7.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.

Gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu eta onartu diren 3.000 €tik gorako fakturak edo ordainketak ondorengoak dira:

- Construcciones Artzamendi SA: 132.574,96 €, JU2ko urbanizazio lanen 7. Zertifikazioa.
- Ingurugiroko lanak 4.146,10 €
VIVEROS BELAR; 1.377,49 €, landaketak egiteko arbolak
SARASOLA URBIETA EDURNE; 1.079,93 € landaketak
BELARMENDI; 1.688,68 €; Altzo Azpiko bete lanaren gainean itxitura egitea
- UEMA; 3.998,06; 2026ko ekarpena (osoa)
- TOLOSALDEA GARATZEN SA; 4.324,50 €, 2026ko Gestio Planean dauden zerbitzu edo enkarguen 1. %50a (erdia).
- TOLOMENDI; 4.932,28 €, 2026ko ekarpena (osoa)
- ARKAITZ URANGA: 6.782,65 €, Altzoko Ostatuko hormairudia margotzeko lanaren 1. %50a edo erdia.
- ARANDIAREN EPAITEGIETAKO GAIETAN: 11.656,62, 1.453,82 eta 356,22

Diru laguntzak:

- Arrima Baserritar Elkarteari; 2026 urte osorako 4.800 € ordaintzea, Egileor aldean alokatuta daukaten nekazal pabiloiaren errenta ordaintzeko. 4 zatitan ordainduko da hiruhilabeteko 1.200€, ahal dela hasieran, beraz apirilaren hasieran 2. ordainketa egingo zaie.

Puntu honekin amaitzeko, informatu da Altzoko Udaletxean, gaurko egunez, 382.468,83 € daudela bi kontuetan; hauetatik 132.468,83 € eguneroko ordainketak eta sarrerak egiteko eta 250.000 € gordailu kontuan.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira aipatu eta arratsaldeko 16:30etan bilkura amaitutzat eman du Alkateak

Altzon, 2026ko maiatzaren 4an ,
Alkateak o.e.: Xabier Olano Jauregi Idazkariak

Oharpena: Akta hau 2026-05-11ko Osoko Bilkuran onartu zen